

**I. eranskina: Eskabide-orria**

<https://www.vitoria-gasteiz.org/docs/wb021/contenidosEstaticos/adjuntos/es/96/52/59652.pdf>

**II. eranskina: Enpresa-proiektuaren eredia**

1. Proiektuaren aurrekariak.

Ideiaren sorrera eta bilakaera.

Proiektua zein maila edo fasetan dagoen. Bideratutako ekintzak.

2. Sustatzaileak.

Curriculum vitae zehatza. Ezagupen teknikoak zehaztu, baita enpresa kudeaketaren alorrekoak ere. Sustatzaileak proiektuan zenbateraino murginduak dauden azaldu.

3. Negozioaren egokitasunaren ebaluazioa.

Produktu edo zerbitzuaren deskribapena. Alderdi berritzaileak.

Merkatuari buruzko ezagupenak:

Sektorearen egoera eta joerak.

Izan litezkeen bezeroen ezaugarriak.

Konkurrentziaren ezaugarriak. Abantaila eta desabantailak, konkurrentziaren aldean.

Proiektuaren puntu sendoen eta izan ditzakeen ahuluneen balioespena.

4. Ekonomia- eta finantza-plana.

Aurreikusitako inbertsioen balioespena.

Finantzaketa-iturriak.

Diru-sarrera eta gastuen aurreikuspena. Errentagarritasun atalasearen kalkulua.

5. Ondorioak.

**III. eranskina: Lan-plana**

1. Eskabidea aurkeztu aurretik egindako jardueren zerrenda.

2. Aurreikusten den hileko jarduera-egutegia, honela banatuta:

– prestakuntza-ekintzak.

– aholkularitza.

– jardunaldi eta ekitaldietara joatea.

– produktu edo zerbitzua diseinatu eta garatzearekin zerikusia duten jarduerak.

– merkatu-azterketarekin, bezero-bilaketarekin, marketin-planarekin eta produktu edo zerbitzuaren promozioarekin zerikusia duten jarduerak.

– hornitzaileak hautatzeko, kokalekua aukeratzeko eta hura egokitzearekin lotutako jarduerak.

– bideragarritasun ekonomikoa aztertu eta proiektua finantzatzerekin zerikusia duten jarduerak.

– legezko izapideak betetzeko jarduerak.

– Enpresa abian jartzeko aurreikusitako bestelako jarduerak.

3. Enpresa abian jartzea aurreikusten den data.

#### IV. eranskina: Bukaerako oroitidazkia

1. Egindako jarduerak, honela banatuta:
  - egindako prestakuntza-ekintzak.
  - jasotako aholkularitza.
  - jardunaldi eta ekitaldietara joatea.
  - produktu edo zerbitzua diseinatu eta garatzearekin zerikusia duten jarduerak.
  - merkatu-azterketarekin, bezero-bilaketarekin, marketin-planarekin eta produktu edo zerbitzuaren promozioarekin zerikusia duten jarduerak.
  - hornitzaileak hautatzeko, kokalekua aukeratzeko eta hura egokitzeko egindako jarduerak.
  - bideragarritasun ekonomikoa aztertu eta proiektua finantzatzearekin zerikusia duten jarduerak.
  - legezko izapideak betetzeko egindako jarduerak.
  - enpresa abian jartzeko egindako beste jarduera batzuk.
2. Lan-planean aurreikusitako jarduerekin alderatzea. Azaldu aurreikusitako jarduera-planaren betetze-maila.
3. Lortutako emaitzak. Azaldu aurreikusitako helburuak lortu diren, eta enpresa eratu den.
4. Prozesuko oztopo eta zailtasunak.
5. Proiektuaren etorkizuna.
6. Enpresaren harremanetarako datuak, eratu bada.
7. Data eta sinadura.